

Zinema

Manchester festa hutsa zen

Apur dezagun matematika: “Ingalaterra + musika + 1970eko hamarkadaren amaiera =...” eginda emaitza bakarra ez da “punk” hitza. Bai, ados, Joy Divisionek eta Manchesterreko garai hartako eszenak punkean izan zuten abiapuntua, baina askoz eremu zabalagoa hartu zuten ondorengo urteetan. Hegoaldean apirilean estreinatu zuten Anton Corbijn-en *Control* filma, Joy Division taldeko abeslari Ian Curtis ardatz duena. Eta lehenago ere, zinematik begiz joa zuen hiria, musika, momentua.



GORKA BEREZIARTUA

ZURI BELTZEAN: Ian Curtisi buruzko film bat ezin zen bestela egin. Eta Anton Corbijn, argazkilari lanetan behintzat, beti izan da gris eskalen zalea. Horrela erretratatu zituen Joy Division taldeko kideak momenturik onenean zeudenean –ikusiko alboko orrialdeko argazkia–, eta horrela egin du pelikula ere. *Control* filma 2007an estreinatu zen ia mundu guztian, baina Bidasoaren alde honetakooi ia hamarkada bukatu zaigu zinema aretoetan noiz ikusiko. Ez da gatzik onik ez dakarrenik: inoiz ez da momentu txarra Joy Divisionez, Factory Records diskoetxeaz, Manchesterreko musika eszenaren historiaz, The Hacienda aretoaz, Tony Wilson ez eta enparauez hitz egiteko... zinematik kontatu diguna baliatuz. Historia handia da, osagarri ugarikoa, baina bi film luzeak –aipatutako *Control*ek eta 2002an Michael Winterbottomek zuzendutako *24*

Sam Rileyk bikain jokatu du Ian Curtisen papera Anton Corbijn-en *Control* filmean.

Hour Party People-ek– ondo laburtu dute saltsa haren zaporea.

Eta historiaren lehen partea triste xamarra da. Zer arraio, tristea da oso: musikari gazte bat, talentuz betea erakutsi du Corbijnek *Control*-en. Institututik atera eta musika talde txiki batean kantatzen hasiko da. Fitxatu du taldeak Factory Records zigiluarekin, egin da abeslaria pixkanaka ezagun, atera da telebistan, jo du kontzertu jendetsuetan. Baina talentuarekin batera doa tormentua: epilepsia krisiak, emaztearekin harreman hotza –are hotzagoa Belgikako kazetari batekin *affaire* bat izan ostean–, arrakasta ezin erama... Jakina da nola bukatuko den: Ian Curtisek bere burua zintzilikatu zuen etxeko sukaldean. 23 urte baino ez.

Controlek asmatu du Curtisen ezin sufrituak kontatzen, nahiz eta –deformazio profesionala izango da– filmaren argazki zainduak askotan jan egiten duen istorioa, zati batzuetan protagonistek esaten dutenari garrantzia kentzeraino. Horregatik agian, apur bat luzetxoa egiten da. Gainontzean, Sam Rileyk bikain jokatu du Curtisen papera, kantatzerakoan zeukan posea harri-

garri ondo imitatzen du, eta bigarren mailako pertsonaiek ere lan ona egiten dute, gauza ez hain erraza, pelikula protagonistan hainbeste murgiltzen denean.

Festa 24 orduz

Baina Manchester festa hutsa zela genioen titularrean. Eta, non da? Ze orain artekoa... Pazientzia, pazientzia. Topikoak dio abeslaria galtzen duen taldeak ez duela izango sekula gehiago arrakastarik. Tira, badago musikaren historian aski adibide kontrakoa frogatzeko ere, baina kontua da Joy Divisioneko gainontzeko kideek serio hartu dutela, eta beste talde bat sortu: New Order. Talde hori bihurtuko da Factory Records diskoetxearen ikur nagusia hurrengo urteetan, eta *Manchester* izenarekin bataiatu zuten mugimendu musikalaren aitzindaria izango da. New Orderrekin batera, beste izen bat: Tony Wilson. Bera izango da Factory Recordsen

arima, baita diskoe-txeak 1982an zabaldu zuen The Hacienda aretoarena ere.

Bestelako musiken garaia dator: Joy Divisionen post-punk ilunetik house-era eta musika elektronikora pasatzeko garaia, dantza, diseinuzko drogak, *rave* jaiak. Michael Winterbottomek momentu horri eman zion garrantzia *24 Hour Party People* pelikulan, nahiz eta *Controlek* erretratatu dituen urteetako sekuentzia batzuk ere agertu zituen, oso modu diferentean agertu ere: Tony Wilsonek Joy Divisionen kontratua bere odolarekin sinatzen duen unea eta Ian Curtisek kontzertu batean jasan zuen epilepsia krisia, adibidez, bi filmetan azaltzen dira.

Erritmo azkarrean kontatua, film bitxia da *24 Hour Party People*. Historiaren benetako protagonistak –musikariak, Manchesterreko musika munduko jendea...– agertzen dira sekuentzia askotan, bigarren mailako pertsonaiak jokatzeko. Baina onena da, horiek azaltzen direnean esan egiten zaiola zeintzuk diren ikusleari, berarekiko itun fikzionala hankaz gora jarritz. *Controlekin* alderatuta oso film bihurria da Winterbottomena, kontatzeko zegoenak hala eskatuta ziurrenik. Tony Wilsonen inguruan egiten du bira kontakizunak, baina Corbijnen lanean ez bezala, ez duzu pertsonaiaren barne mundura egindako bidaia-rik aurkituko: uste handiko hitzontzia da filmeko Wilson, egoerak behin eta berriz gaintzen duen galtzajario bat, desastre hutsa negozioak egiteko. Baina Winterbottom ez da gehiago murgiltzen, nahita. Wilsonen bizitzako pasarte batzuk gaintetik pasa zituen, baina hori ere jakinarazten zaio ikusleari: “Bigarren mailako pertsonaia naiz nire historian bertan” esaten dio Wilsonek ikusleari filmeko pasarte batean.

Garrantzitsuena Factory Recordsen eta The Hacienda aretoaren historia baita, fenomeno musikalaren historia: diskoetxearen iza-



Oso modu diferentean kontatu dute Winterbottomek eta Corbijnek musikaren historiako pasarte bera



Eskuinean Joy Division taldeko kideak, 1970eko hamarkada amaieran Anton Corbijnek egindako argazkian. Ezkerrean Steve Coogan, Tony Wilsonen paperean, *24 Hour Party People* filmean.

rretarainoko hegaldia, eta urteekin, sosik gabe geratu zirenean, lurraren kontra hartu zuten kolpearena.

Ikaroren bi hegaldi

Oso proposamen diferentek dira Corbijne-na eta Winterbottomena, musikaren historia-ko pasarte bera kontatzen ari badira ere. Introspektiboa, sakona, batzuetan geldoa, *Controlek* auto-suntsiketari buruzko gogoeta izan nahi du; musikak balio du, kontzeptu horretan murgiltzeko baldin bada. *24 Hour Party People*-ek berriz, garai baten erretratu inpresionista eskaini gura du, eta Tony Wilsonek balio du, garai hori azaltzeko pieza garrantzitsu den neurrian.

Controlean azken sekuentzian tximinia bat agertzen da Curtisen errauntsak zeruratzen; *24 Hour Party People*-en berriz, The Hacienda arpilatzen dute bezero-ek, Tony Wilsonek hala eskatuta, aretoa itxi beste erremediorik geratzen ez zaielako. Nolabait Ikaroren mitoa berrirakurketa egiten dute bi filmek, bakoitzak bere erara: Ikaroren agonikoa da Ian Curtis Corbijnen filmean: badaki hegalak kiskali zaizkiola, baina ez zergatik, eta ezin du ezer egin itsasoan ez itotzeko. Winterbottomen filmeko Wilsonek berriz, badirudi nahi duela itsasoa, berak eman diela su hegalei, dibertitzeko asmoz. ■